




Urnietako Udal Kiroldegian barrena

Eraikitze lanen jarraipena egiten aritu da Aiurri astekaria, Laura Asensio Udal arkitekto teknikoarekin batera / 10-11



'Pole dance'
kirol jarduerari
buruzko elkarrizketa
Ander Goya
urnietarrari. / 12-13




Sare herritarra
mugimenduak
egitasmo berria
antolatu du, datorren
otsailaren 26rako / 7



Andoaingo Udalak
Gobernuz Kanpoko
Erakundeekin dituen
egitasmoak aurkeztu
ditu / 4-5



Inauteriak,
modu apalean ere,
ospatu dira
Andoainen eta
Urnietan / 2-3



**"Fusilak eta
pintadak"**
dokumentala
Basteron,
otsailaren 25ean / 15



SETIEN SAGARDOTEGIA

IREKIERA: OTSAILAK 20

Sagardotegiko menua
Ostiral, larunbat eta
igande eguerdian: 14:00-17:00

Oztaran auzoa, URNIETA. 943 55 10 14 - 656 776 788





2012-2013 urtean jaiotako saridunak. AIURRI

Maskara lehiaketako irabazleak

Inauteriak ezin izan dira ohi modura ospatu, baina hala eta guztiz ere Andoaingo Udalak hainbat ekimen aurrera eraman nahi izan ditu. Ostegun Gizenean ospakizunak ikastetxeetan egin baziren ere, Udalak eta Sormen tailerrak elkarrekin antolatutako maskara lehiaketarekin aurrera egitea erabaki zuten. Ostegunean bertan, beti egin izan den bezala, sari banaketa ekitaldia egin zuten. Basteron elkartu ziren sarituak eta Udal ordezkariak, lehiaketara aurkeztutako maskarak ikusgarri zirela. Irabazleak hauexek izan dira: 2007-2009 urteetan jaiotakoan artean Izaro lehiakidea izan da lehena, eta Sheila eta Enara bigarrena eta hirugarrena. 2010-2011 urteetan jaiotakoan artean onenak Minerva Cajaraville, Irati Nuñez eta Maren Aranburu izan ziren, hurrenez hurren. 2012-2013 urteetan jaiotakoan artean, aldiz, David, Uxue eta Ane nagusitu ziren.

Ez zen haurrei begira antolatutako saio bakarra izan. Larunbatean "Meri, Mari eta Lari" ikuskizuna antolatu zuten Basteron.



2010-2011 urtean jaiotako saridunak. AIURRI



2007-2009 urtean jaiotako saridunak. AIURRI



Aldapeko Basque Latin Jazz taldea, Basteroko taulagainean. AIURRI

Aldapeko Basque Latin Jazz taldearen emanaldia

Imanol Iribarrenek gidatzen duen Aldapeko Basque Latin Jazzek kontzertu dantzagarria eskaini zuen Basteron.

Xabier Lasa ANDOAIN

Pozik egon liteke Iribarren tronboi eta piano jole andoaindarra, aspalditxoan buruan zebilkien asmoa familiaren, adiskideen eta herriko musika zale ugariren aurrean gauzatzeko aukera edukit baitzuen joan den ostiraleko kontzertuan.

Euskal tradizioko doinuak eta erritmo latinoak uztartzea, eta emaitza jazz melodiekin zipriztintzea zuen amets, eta hainbat abesti osatu ditu grina horri erantzunez. Behin mamia edukita, jaki hori dastatzeaz gain publikoari dasta araziko dioten interpretatzaileak biltzea izan zen bere hurrengo zeregina. Kostata, baina egia esan, zazpi musika trebe batu zaizkio proiektura.

Andoaingo musikazaleentzat lehendik ere ezaguna da Imanol Iribarrenek daukan maitasuna pianoarekin hots zoragarriak ateratzeko, eta beste behin erakutsi zuen jakinduria hori. Baina bazegoen ikusmina taldeko beste zazpi instrumentu joleen presentziagatik.



Imanol Iribarren andoaindarra. AIURRI

Patricia Mancheño (baxua), Manu Pinzón (bateria), Eva Catalá (kongak), Peio Irigoien (txistua, tronpeta eta dultzaina), Asier Ardaiz (tronpeta), Alvaro Jarauta (tronboia), eta, Iñigo Coraok (tronboia) eskarmentu handiko musikariak direla erakutsi zuten Basteroko oholtzan.

Beharbada, Peio Irigoien irundarraren txistu bihurri, jostagarri eta indartsua da azpimarra

litekeena, gainerako instrumentuen gainetik; harrigarria, bai txistuaren hots tradizionala gertu bizi duen euskal herritarrentzat, eta baita euskal tradizioa arrotz zaionarentzat.

Errepertorioari begira jarrita, zortzikoteak denetik eskaini zigun ia ordu eta erdiko kontzertu gogoangarrian: euskal agurra kubatar ukituarekin, inauteri giroko doinuaren moldaketak, Irungo soka dantza nahiz Zortziko San Juanen bertsio libreak, Aldapeko sagarraren ikuspegi latinoak... Azken-azkenarako utzi zuten Eperrak Zuberoko abesti herrikoia.

Ezinezko maitasun baten kronika musikatuarekin amaitu zuen kontzertua Aldapeko Basque Latin Jazz taldeak, baina musika maite duen eta sormenerako zailduta dagoen Imanol Iribarrenen aurkezpen polita egiteko balio izan zuen Basteroko kontzertuak.

Oso gutxitan urratu den bideari ekin dio Iribarrenek; pauso ausart, esperimental eta modernoaren bidez.



UGALDE

Argazki lehiaketako saridunak

Kalean ospakizunik egingo ez zenez, Aiurrik etxe barruan moztarotatu behar zutenen artean lehiaketa antolatu zuen. "Non dago Wally?", Garbiñe Ugaldere argazkia da goian aurki daitekeena. Eurentzat izango da Babexak eskaini duen pizza afaria. Hiru jatorrearen


otordua, bestalde, David Urtasunen "Erleak" irabazi du. Eta Ollokik eskainitako saria, aldiz, Arantzibia kaleko Axier Zabalarantzat izan da. Aiurritik eskertza adierazi nahi die parte hartzaileei eta saria eman duten ostalariei.



ZABALA



URTASUN



San Juan plazaraino igo ziren "Zonbiak". ETXEBERRI

Urnietako Etxeberri plaza

Ekimen handia erakusten ari dira Etxeberri plazako hainbat herrikide, urtean zehar ekitaldiak antolatzen baitituzte. Haietako batzuk, Zonbien antzera ibili ziren larunbat arratsaldean.



egunean
behin

- **Aste bakoitzeko sagardo kaxa bana zozkatuko da.**
- **Lehen irabazleak: Txuruskita (Mizpiradi) eta Lupita (Zabala)**

Ostalaritzako menuak euskaratzeko deia

Andoaingo Udaleko ENBA euskara sailak informazio orriak euskaratzeko zerbitzua eskaintzen du

Erredakzioa ANDOAIN

Andoaingo Udalak eskaintzen duen zerbitzua doakoa da. Baliaztzea ostalarien esku dago. Hauxe da Udalak zabaldu duen mezua: "Andoaingo tabernak berriro ere irekita daudela-eta, ostalariei gogorazten dizuegu, behar izanez gero, Udaleko Euskara Lansailak zuen establezimenduen kartak, menuak eta informazio orriak euskaratzeko zerbitzua eskaintzen dizuela. Bidaliguzue emaila euskaraz-zerbitzua@andoain.eus postara, eta erantzun dizuegu. Eta ez ahaztu errotulua, irudi korporatiboa eta webgunea euskaraz jartzea-gatik eskuragarri dituzun dirulaguntzak".



Kaletxiki. AIURRI

Espaloi bakar

Etxebizitza berriak egiteko lanak direla eta, Kaletxikiko espaloi bakar erabili ahal da

Erredakzioa ANDOAIN

Etxebizitza berriak egin behar dituzte Kaletxikin, eta lanei ekiteko oinezkoen pasabidea baliogabetu egin dute. Goikoplazarako bidean, beraz, beste espaloia erabili beharko da.



Taldeko argazkia atera zuten, Goikoplazan. AIURRI

Xabier Lasa ANDOAIN

Maider Lainez alkateak adierazi zuenez "ez dago zalantzarik birus pandemikoak gure jardura modu erabakigarrian baldintzatu duela. Koronabirusak mugarik, nazionalitatek eta klase sozialik onartzen ez duela esaten den arren, baieztapen hori engainagarria da, herrialde pobreenek eta klase behar tsuenek ez baitituzte pandemia-ri aurre egiteko baliabide berberak. Horregatik, beste urte batez, nazioarteko lankidetzaproiektuak finantzatzen jarraitu nahi izan dugu".

Bereziki nabarmentzekoa, pandemia garaian

Elkarteetako ordezkariak ere euren egitasmoen berri azaltzeaz gain, esker ona agertu zioten Udalariei. Bereziki aurturteko jasoko dituzten diru laguntzak ezinbestekoak egingo zaizkiela aitortu zuten, kontuan hartuta COVIDak eragindako osasun krisiak, mundu guztia hankaz gora jarri duela eta ahulenak izaten ari direla kolpatuenak. Batetik, aipatu zu-

Nazioarteko lankidetzaz sustatzen

Andoaingo Udalak eta Gobernu Kanpoko Elkarrekin lankidetzaz berri sinatu zuten, aurreko ostiralean. Desberdintasuna eta pobrezia gehien pairatzen duten herrialde eta komunitateen alde urte luzez hartutako konpromisoa berretsi zuen Udalak

ten pandemiak are gehiago zaildu diela garapen bidean diren munduko lurralde anitzetan normaltasunez lan egitea. Eta bestetik, hemengo instituzioek aurrekontuak estutu behar izan dituztela, eta eraginez, kaltetua irten dela nazioarteko herrieki-

ko elkartasuna. DOA (Denok Osasuna Alde) elkarteak Roberto Garciak, konparazio batera, bere kooperazio eredua zeharo aldatu behar izan dutela adierazi zuen. "Boliviako Beni Amazoniako eremurik apartatuenera medikuntza arloko bolun-

tarioak bidaltzea eta kirofanoak antolatzea izan da gure zeregina, orain arte. Baina egokitu behar izan dugu geure ohiko garapen eredua. Izan ere, hemengo mediku eta erizainak lepo dabilta. Ezin dute hara bidaiatu. Era horretan, botikak eta materiala

Hiru egitasmoen aurkezpena



Lurdes Lekuona. AIURRI

Lurdes Lekuona FASFI (Laguntza Solidarioa Jesusen Alabak Fundazioa). “Gure egitasmoa Bangladeshen kokatzen da. Fundazioak Garo tribuko neskato gazteentzat ireki zuen barnetegira bideratuko da diru-laguntza. Bertan, 80 bat neskatoek (9 eta 14 urte bitartekoak) bizi dira. Ostaturia eta elikadura bermatzeaz gain, arlo guztietan prestakuntza profesionala jasotzen dute. Barnetegiaren azken helburua, etorkizunean, neskato horiek bizimodu autonomoa egin ahal izateko formakuntza pertsonala eskaintzea da. 2011z geroztik ari da garatzen egitasmo hori han. Hain zuzen, Ama Kandidaren kanonizazioa gertatu zen urte hartan, estatu mailan, Elcheko delegazioak lehen urratsa eman zuen Bangladeshen. Eta pixkana-pixkana, beste zenbait delegazio atzetik joan gara, baita Andoaingo ere”.



Arantxa Odriozola. AIURRI

Arantxa Odriozola FISC (Mariaren Konpainia, Nazioarteko Elkartasunerako Fundazioa). “Managuako Sandino izeneko auzoan osasun proiektu bat garatzeko erabiliko dugu Andoaingo udaletik jasoko dugun diru laguntza. Hain zuzen, gogoratu behar da Mich hurakan tropikalak Ertamerika dena txikitu zuela 1998an. Horren eragin kaltegarrietako bat izan zen Nikaraguako biztanlengo zati handi batek bizi-lekuz aldatu behar izan zuela. Besteak beste, Managua hirian, 10.000 pertsonen osatutako Sandino auzoa sortu zen. Egoera penagarrian bizi da han jende ugari, eta 2000az geroztik gure elkartek han kooperazio lanak egiten ditu, bertako jendearen hezkuntzaren eta formakuntzaren arloetan. Andoainetik helduko den diru laguntzari esker dispentsario bat irekiko dugu, osasun sustatzaileak formatzeko asmoz.



Gorka Eskalante. AIURRI

Iruditzen zaigu, poliki-poliki, 700 bat pertsona forma ditzakegula, eta gero, horiek, 10.000 pertsonen osatutako giza kolektibo hori artatu ahal izango.

Gorka Eskalante Herriak Elkarlanean. 2016an, Haitiko Lasarre auzoan sei gelako ikastetxe baten eraikuntzan parte hartu genuen. Une honetan lehen hezkuntzako 175 haurrei ematen zaie eskola ikastetxe horretan. Orain, bertatik, beste sei gela eskatu dituzte bigarren hezkuntzari begira. Horrela, 300 ikasleko ikastetxera iritsiko ginateke. Aurrera eramaten kostatzen ari den proiektua da, izan ere, gaizki-gaizki bizi den jende ugari dago eskualde hartan, oinarritzko elikadurara iritsi ezinik. Gauzak horrela, daukagun diru-kutxa hezkuntzaren aurretik dauden larrialdi egoera horietara bideratu beste erremediorik ez zaigu geratu.

Hogei gobernuz kanpoko erakundeek egitasmoak

Hauexek dira Andoaingo Udalak garapen bidean diren herrialdeetan lagunduko dituen hogeit hamar egitasmoak



Zaporeak taldekoak Lesbosen ari dira lanean. ZAPOREAK

Xabier Lasa ANDOAIN

Egitasmoen nondik norakoak, kokapena eta jasoko duten diru kopurua.

Salvamento Maritimo elkartea. Sorrospen asistentzia (Chios uhartera, Grezia). 9.400 euro.

Serso San Viator. Emakumeen eta gazteen sareak (Jutiapa, Honduras). 6.300 euro.

HONEK GKE. Hornikuntzarako putzu bat eraikitzea (Totogalpa, Madriz, Nikaragua). 8.650 euro.

Zaporeak. Elikadura duin eta osasuntsu baterako eskubidea (Lesbos, Grezia). 7.400 euro.

Lankidetzarako Ingeniaritza. Txirotasunaren aurkako borroka, edateko ura lortuz (Idjwi irla, Hego Kivu, Kongo). 9.400 euro.

FASFI. Santa Candida barnetegiko Garo tribuko neskatoen elikadura, hezkuntza eta osasun egoeraren hobekuntza (Utrail, Bangladesh). 5.900 euro.

AMS (Mundu Solidarioa Helburu). Aukeren ereiten, aniztasun funtzionaleko pertsonentzat formakuntza zentroa eta bizitokia (Diriamba, Nikaragua). 6.300 euro.

Calcuta Andoain elkartea. Buruko gaixotasuna duten emakumeen birgaitze eta birgizarteratze prozesuen indartzea (Kerala, India). 6.300 euro.

Taupadak. Osasun sistemaren indartzea (San Ignacio de Moxos, Beni, Bolivia). 9.400 euro.

Medicus Mundi Gipuzkoa. Emakume adivasiarren eskubide sozial, ekonomiko eta sanitarioaren alde (Gujarat, India). 6.300 euro.

Bakerako Lankidetzak Batzarra. Oilerien eraikuntza (Ouonk Komunitatea, Senegal). 5.900 euro.

Herriak Elkarlanean. Eskola berria-III. Fasea (Lasarre, Haiti). 6.300 euro.

Doa (Denok Osasuna Alde). Sorrospen eta formakuntzaren eremuan osasun sistema indartzea (Beni, Bolivia). 6.300 euro.

Gipuzkoako Oscar Romero Solidaritza Batzardea. Familia nekazarien arnasako eta biriketako gaixotasun arriskua murriztea (Tacuba, Salvador). 6.300 euro.

FISC (Mariaren Konpainiaren Nazioarteko Elkartasunerako Fundazioa). Nueva Vida auzoko 250 familien osasuna hobetzea eta osasuna sustatzea (Ciudad Sandino, Nikaragua). 3.900 euro.

Behar Bidasoa. Nekazarien trebakuntza/sendotzea eta nekazaritza eta abeltzantza jardueren garapena (Kabuga, Rwanda). 8.900 euro.

Abay Euskadi Nilo Azul. Dillu ikastetxeko azpiegiturak gehitzea eta putzu baten eraikuntza (Dillu, Etiopia). 6.300 euro.

J.A. Freyter Romero Elkartea. Nazioarteko erantzukizunak giza-terriaren aurkako krimenetan. Kolonbiako kasua (Kolonbia). 5.900 euro.

Munduko Begiak. Itsumen saihesgarrien prebentzioa eta tratamendua hobetzea (Mopti herrialdea, Mali). 6.400 euro.

Derandain Fundazioa. Lehen hezkuntzaren hobekuntzarako programaren II. Fasea (Turkana, Kenia). 6.300 euro.

erosten ari gara hango ospitaleetako azpiegiturak sendotzeko. Beti da premiazkoa hemendik bidaltzen den materiala. Eta are gehiago egun hauetan, COVIDaz gain gainerako gaixotasunek ere hortxe daudelako”.

ERAKUNDEETAKO ORDEZKARI GUZTIEK ESKERTZA ADIERAZI ZIOTEN ANDOAINGO UDALARI



andoaINDARRA
euskaraz



Udal ordezkariak HeziZerb eta Educo taldeetako ordezkariekin batera. AIURRI

Udalerrira egokitutako plangintza

Hautzaroan tratu onak ematea helburua duen "Tratu on" ekimena aurkeztu zuten, aurreko ostiralean. Udalak alor honetan urratsa emateko konpromisoa adierazi du. "Ardatza izango den herriko plangintza bat nahi dugu", adierazi zuen Lainezek

Mikel Arberas ANDOAIN

Hautzaroan tratu onak ematea helburua duen "Tratu on" ekimena aurkeztu zen ostiralean Udaletxean. Bertan, alderdi guztietako ordezkariak eta HeziZerb eta Educo taldeetako kideek parte hartu zuten.

Hezi Zerb, batez ere, Gipuzkoan lan egiten duen irabazi asmorik gabeko elkarte da. Gizarte zerbitzuetan, Gazterian eta Hezikuntza ez formaleko esparruan zenbait zerbitzu kudeatzen ditu; ekimen eta egitasmo publiko zein pribatuak garatzen ditu.

Educo, bestalde, garapenerako eta ekintza humanitariorako lankidetzak globaleko Gobernu Kanpoko Erakundea da. 14 herrialdetan lan egiten dute; hau-

rren eta haien eskubideen alde diharduten erakundea da, bereziki kalitatezko hezikuntza jasotzeko eskubideagatik.

Maider Lainez alkatearen esanetan, Andoaingo Udalaren apustua hautzaroarekin erlazioatutako arloak sustatzea izan da. Gauzak horrela, Udalak aurrerapauso bat eman nahi du, eta haurren tratu ona bultzatuko duen udalerrira izateko lanean jarraitzeko konpromisoa hartu dute. "Ardatza izango den herriko plangintza bat nahi dugu, hain zuzen ere, zenbait neurri martxan jartzeko. Hori guztia egikaritzeko, Hezi Zerb eta Educoren laguntza edukiko dugu".

Hezi Zerb elkarteak Ibai Narbarteke ere hitz hartu zuen Uda-

letxean: "Hezi Zerb eta Educo bidelagun izan nahi dugu, Andoain tratu on eta babes eremu izan dadin". Hala ere, alkateak eta Gizarte Zerbitzuetako lehenakariak aitortu zuten, aurrerapen asko egin diren arren, oraindik ere hautzaroaren arloan erronkak daudela. "Udaletik, beste urrats bat eman nahi dugu, eta Andoain hautzaroari tratu ona emateko konpromisoa duen udalerrira izan dadin lan egin nahi dugu. Apustu instituzional horrek esan nahi du gure tokiko politikan haurren eskubideen kultura txertatu behar dela, eta hori tokiko jardura-plan batean islatuko da, eta plan hori izango da haurrei zuzendutako ekintzen ardatza".

**HEZIZERB ELKARTEAK
ETA EDUCO GOBERNUZ
KANPOKO
ERAKUNDEAK ESKU
HARTUKO DUTE**

**"ARDATZA IZANGO
DEN UDALERRI
MAILAKO PLANGINTZA
NAHI DUGU"**

MAIDER LAINEZ, ALKATEA

**"TOKIKO POLITIKAN
HAURREN ESKUBIDEEN
KULTURA TXERTATU
BEHAR DA"**

MAIDER LAINEZ, ALKATEA

KOMUNITATEA

SARE HERRITARRA ANDOAIN

Hitzordu berria hilaren 26an



Otsaileko agerraldia deitu duten Sareko partaideak. SARE

Abenduaren hasieran egin genuen agerraldian esan genuen bezala, "bakerako konponbiderako-etxerako" dinamika abian dago. Hilabete emankorrak izan dira azken hauek. Ehunka andoaindar batu dira egin ditugun mobilizazio ezberdinetara. Urtarrilak 9an, 400 andoaindar inguru elkartu ginen Goikoplazatik Zumea eragindako manifestazioan.

Presoen eta senideen eskubideen defentsan indarrak batzeko unea da. Mugimendu batzuk ematen hasi dira, eta horrekin preso eta senide batzuen egoera hobetu da. Andoaingo egoerari dagokionez, urte berezia izango da aurtengoa. Irailean, Axier Oiarzabalek 20 urte beteko ditu espetxean.


Eta datorren maiatzean, espetxean 13 urte beteko dituen Ainhoa Ozaetak, etxetik 950 km-tara jarraitzen

du. Egoera hauek konpontzeko guztien konpromisoa beharrezkoa da. Erakunde publikoak inplikatu eta andoaindar hauen egoera soluzio bidean jarri behar dugu.

Hau gutxi balitz, espetxealdi berrien mehatxua gehitu zaigu. Eta abendua amaieran jakin genuen Ruben Gelbentzu andoaindarra berriz ere auzipetu dutela. Bidegabekeria honi behin betiko amaiera eman behar zaio.

Horretarako herritarren mobilizazioa ezinbestekoa da. Soilik herritarren mobilizaziotik etorriko baita erakunde inplikazioa. Hori dela eta, andoaindar guztiak deitu nahi ditugu otsailaren 26an, 19:00tan egingo dugun elkarretaratzean parte hartzera. Ainhoa eta Axier etxera ekartzeko bidea martxan jartzera.





URKO VALLEJO

Bi olaturen artean

Azken egunotako adierazle guztien arabera, COVID-19 izurritearen hirugarren olatuaren eragina murrizten hasi da. Egoera kezkaz bizi dutenentzat, datuei begira jartzea eguneroko jarduna bilakatu da

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Azaroan eta urtarrilean bizi izandako estuasunak alde batera geratzen ari dira, garapen epidemiologikoa neurtzeko aldagai nagusiak hobetzen doazela. Urko Vallejoren laguntzarekin, hauexek dira pandemiak asteartera arte utzi dituen datuak:

- Andoain 981 kasu; biztanle-goaren %6,55a.
- Urnietan 504 kasu, biztanle-goaren %8,12a.
- Gipuzkoan 49.261 kasu, biztanle-goaren %6,84a.
- Euskal Autonomi Elkartegoan 148.175 kasu, biztanle-goaren %6,74a.

Datu bakan horretatik ondoriozta daiteke Andoain Euskadi osoko batz bestekoaren pare ibili dela. Pittin bat hobeto, gainera.

Urnietan, aldiz, pandemiak eragin handiagoa izan du. Eta, bereziki, nabarmen egin zuen gora iazko azaroan.


Positibotasun eta intzidentzia tasa, astez asteko alderaketa eginez

ANDOAIN



- **Otsailak 10-Otsailak 16:** 10 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 240,19.
- **Otsailak 3-Otsailak 9:** 26 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 373,63.
- **Urtarrilak 27-Otsailak 2:** 30 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 680,54.
- **Urtarrilak 20-Urtarrilak 26:** 72 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 887,38.
- **Urtarrilak 13-Urtarrilak 19:** 61 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 834,00.
- **Urtarrilak 6-Urtarrilak 12:** 64 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 660,53.

URNIETA

- **Otsailak 10-Otsailak 16:** 1 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 144,95.
- **Otsailak 3-Otsailak 9:** 8 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 499,28.
- **Urtarrilak 27-Otsailak 2:** 23 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 837,49.
- **Urtarrilak 20-Urtarrilak 26:** 29 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 853,60.
- **Urtarrilak 13-Urtarrilak 19:** 16 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 467,06.
- **Urtarrilak 6-Urtarrilak 12:** 5 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 177,16.



URKO VALLEJO



URKO VALLEJO

Intzidentzia tasa metatua, ekainetik hona

Azken 14 eguneko intzidentzia tasa metatua erreferentzia gisa erabili dute osasun erakundeek, pandemiaren aurrean neurri murriztaileak ezartzerako garaian. Ekainaz geroztik joera oso aldakorra izan da, eta Andoainen eta Urnietan portaera oso ezberdina izan da. Andoain Gipuzkoaren pare joan dela esan daiteke. Urnietan gorabehera handiagoak izan dira.



Laura Asensio Udal arkitekto teknikoak lanen egoeraren berri eman dio Aiurriri: "Egitura osoa ia-ia bukatuta dago. Orain estalkia jartzea falta da, baina horren egitura ere ia-ia bukatuta dago. Eskailerekin hasi gara, beheko solairuan, eta hasierako instalakuntzekin. Gero instalazioaren zatiketak egingo dira, eta eraikina itxi". URNIETAKO UDALA

Andoni Urbistondo URNIETA

Pintore eta Belandi kaleetan, eta Zubitxo plazan bizi diren urnietarrentzat eguneroko kontua bilakatu da kiroldegi berriko eraikuntza lanen bilakaera. Kiroldegi zaharra zegoen atarian etengabea da jende emana. Jende asko pasatzen da hara eta hona, eta lanen bilakaera ezinbesteko hizketa gai bilakatu da herritar askorentzat. Pasa den urteko otsailean sartu ziren langileak, lehen kamioiak, dena hautsi eta eraikin berria egiteko zimendua sortzeko. Hilabete luzetan orube huts handia baino ez zen ikusten, baina azken hilabeteetan lanek oso bestelako itxura hartu dute. Eraikin berria hazten eta hazten joan da, eta lanek urtebete bete duten astean azpiegiturako zati handiena bukatuta, edo bukatzeaz dagoela esan genezake. Kiroldegi berriaren eskeletoa, ulertzeko.

Urrian hasi zen eraikina forma hartzen, eta orduz geroztik etengabea izan da kamioien garraioa, batez ere porlana garraiatzen duten kamioiena. Urte hasieran egur xafla luzeak ekarri zituzten konboi bereziak ere iritsi ziren kiroldegi atarira, obra berrien eraikuntzan hain ohikoak diren

Urtebete, ondo bidean

Udal kiroldegi berriko lanak aurreikusitako epeak betetzen ari dira; gauzak ondo, hurrengo urtean azpiegitura bukatu eta eraikina 'betetzeko' lanak burutuko dira. Orube huts izatetik, azken hilabeteetan lanek oso bestelako itxura hartu dute

sasi arkitekto eta sasi aditu taldeak sortuz espaloian. Kiroldegi berria Urnietan azken urteetan egingo den proiektu garrantzitsuena dela esan liteke, eta erabiltzaile asko erakartzen dituen heinean, lanen bilakaera gertutik jarraitu dute askok.

"ERRITMO ONEAN DOAZ LANAK, ETA HALA JARRAITZEA ESPERO DA"

LAURA ASENSIO, ARKITEKTO TEKNIKOAK

Baita Laura Asensiok ere, Urnietako Udaleko arkitekto teknikoak ere. Aiurri aldizkariak lanen gertuko jarraipena egin du bere laguntzarekin, herritarrei eraikuntza lanen xehetasunak helarazteko asmoarekin. Lanak hasi zirela urtea bete den honetan, Asensiok obra ondo doala nabarmendu digu, ezustetik gabe: "Itxura hartzen ari da pixkanaka, eta bolumena deitzen dioguna guztiz osatua dago. Urtebete bete da aste honetan, erritmo onean doaz lanak, eta hala jarraitzea espero da". Lanek eraldaketa handia izan

dute hilabete gutxitan. Ez aspaldi, orube handi bat baino ez zen ikusten, eta egun, ia eraikin osoa egina. Honatx Asensioaren azalpena: "Obra guztietan bezala, behetik gora egin beharreko lana samurragoa da, lur azpian kanpotik gutxi ikusten den, edo ikustez ez den lan ezkutu handia

"EGITURA OSOA IA-IA BUKATUTA DAGO. ORAIN ESTALKIA JARTZEA FALTA DA"

LAURA ASENSIO, ARKITEKTO TEKNIKOAK

baitago. Zimendua ondo osatzea, baina, funtsezkoa da, nahiz eta denbora asko hartu. Azken hilabeteetan beste itxura bat hartu dute lanek, eraikinak bolumena irabazi du, eta prefabrikatutako azpiegiturarekin ikusgaitasuna agerikoa da".

Lanen bilakaeran ez omen da ezusteko edo aurreikusi gabekorik gertatu: "Ez obrari berari dagokion kontuengatik, behintzat. Lanak mantsotu dituen arazo handiena pandemiarena izan da, lanak bi astez geratu behar izan baikenituen pasa den urteko apirilean. Lanak hasi eta berehala, gainera". Lanek martxa hartu zuten gero pixkanaka, "baina materialak iristerako garaian-eta atzerapen txikiak gertatu ziren, eta horrek eragina izan du obren bilakaeran". Atzerapen horri aurrea hartzeko asmoz, "proiektuko beste fase batzuk garatzen hasi ginen, eta horri esker ba epeak betetzen ari gara", dio arkitekto teknikoak.

Nola dago gaur-gaurkoz eraikin berria? "Egitura osoa ia-ia bukatuta dago. Orain estalkia jartzea falta da, baina horren egitura ere ia-ia bukatuta dago. Eskailerekin hasi gara, beheko solairuan, eta hasierako instalakuntzekin. Gero instalazioaren zatiketak egingo dira, eta eraikina itxi". Kanpotik begiratuta itxura ederra dauka kirol kantxa berria izango denak, egur xaflaz hornitzen ari direna. Ezin izan dugu ikuskatzera sartu, aldarmioen bitartez bakarrik irits daitekeelako bertara, baina eraikin berriarekin, Urnietako kiroldegiak erabilera anitzetarako prestatuak dauden bi kirol kantxa handi izango ditu, beharren arabera erabiltzeko. Bai lehiaketetarako izan, baita kirol elkarteko hainbat talderen entrenamendu saioetarako ere, asteburuetan gertatzen ziren pila- ketak saihestuz.

Asensio arkitekto teknikoari behe solairuko halako marrazkia egiteko eskatu diogu: "Alde batera, eskuinean edo igerileku aldera harrera, areto zein igerilekuen aldagelak eta erabiltzaileen komunak kokatuko dira, padel eta teniseko pisten azpian, eta ezkerreko aldean, Belandi kaleko etxe multzo aldera, bi gune edo multzo, bakoitza bere sarrerarekin, musika taldeek entseguak egiteko aretoak, banakakoak edo taldekakoak. Eta erdiko aldean kirola egiteko



Egitura amaitu ondoren, ekipamendua jartzea izango da azken lana. AIURRI

areto ezberdinak atonduko dira. Lehen solairuan kirol kantxa eraikiko da padel eta teniseko pisten maila berdinean”.

Lanak bukatzeko epe zehatzik ez

Urnietako edozein herritarri galdetuz gero, lanak noiz bukatuko diren galdetuko luke. Edota noiz izanen duten kiroldegi berria erabiltzeko aukera. Asensio oso zuhur mintzatzen da data zehatzaz galdetuta: “Berez hurrengo urterako egon behar dute lanek bukatuta, hala jasota dago proiektuan, eta epeak betetzea espero dugu, baina pandemia hor dago, eta ez dakit eraginik izango duen edo ez hurrengo hilabeteetan. Espero ez den arazoren bat ere sor daiteke tamainako eraikuntza batean”. Kanpoko azpiegitura osoaz ari dela zehazten du Asensiok, “ondoren barrukoa bete beharko litzatekeelako, ekipamendua azkeneko gauza baita”.

Arkitekto tekniko batentzat lanak ondo joatea gauza polita omen da. “Ez ahaztu kiroldegi berria Urnietak azken urtetan izan duen eraikuntza lan garran-

tzietsuena izango dela. Fisikoki ere ikusgarria dela esango nuke, eta noski, proiektuan murgilduta egon garenontzat gauza pozgarria da. Orain lanak ikusgaitasuna irabazi dute, baina nabarmendu nahi nuke aurrez urtetako bulegoko lan ilun handia suposatzen duela halako proiektu erraldoi batek. Nik denbora gutxi daramat lanpostu honetan, baina aurretik egon direnak lan handia egin dute, eta noski, haiengandik ere poztzen naiz, lanen bilakaera ikusita”.

Igerilekuaren inguruko zehaztasunak

Igerilekuaren inguruan ere eztabaida sortu da kale bazterre-

tako elkarrizketetan. Udarako irekiko ote den, ez den irekiko... Arkitekto teknikoak azalpenak eman nahi izan ditu: “Igerilekua eta kiroldegi berriko lanak bakoitza bere aldetik doaz, batek ez du bestean eraginik izango, independenteak baitira. Salbuespena igerilekuari dagozkion aldagelak eta komunak izango dira soilik, kiroldegi berriko eraikinean kokatuko direnak. Igerilekuaren irekiera pandemiak baldintzatuko du, baldintzatzen kotan, baina lanen bilakaerak ez.

Asensiok dioenez, “igerilekuak ez du behin-behineko edo instalakuntza probisionalik edukiko. Orain dela hiru bat aste igerilekuko instalakuntza berrien eraikuntza hasi zen Pintore kalearen aurrean. Instalakuntza horiek kiroldegi zaharreko eraikinaren barruan zeuden orain arte, eta aurreantzean eraikin berri horretan egongo dira: filtroak, biltegiak eta beste jarriko diren eraikin txiki bat izango da”. Lan horiek udaberrian bukatzea espero dute. Eta ondoren, pandemiaren egoera baloratuko da.

"PANDEMIAK BALDINTZATUKO DU IGERILEKUAREN IREKIERA"

LAURA ASENSIO, ARKITEKTO TEKNIKOA



Laura Asensio, Udala arkitektoa. AIURRI

"LANAK AMAITZEKO EPEAK BETETZEA ESPERO DUGU, BAINA PANDEMIA HOR DAGO"

LAURA ASENSIO, ARKITEKTO TEKNIKOA

Ordezkaritza duten alderdien iritzia

EAJ-PNV

"Oso gustura gaude obrak lehen urte honetan izan duen garapenarekin. Lanak erritmo onean doaz eta Covid 19-a tartean izan dugun arren, aurreikusita genituen exekuzio epeak betetzen ari gara. Oraindik gauza dezente daude egiteke, baina gero eta gertuago dugu punta-puntako kirol instalazio modernoaz gozatzen hasteko unea. Gogoratu behar da proiektua Avento etxeak egindako azterketa batean oinarrituta, eta herriko eragile desberdinen ekarpenak aintzat hartuta garatu zela, eta jasotako errealitate horiei guztiei erantzun die eraikin berriak. Gainera, etorkizunean eman daitezkeen garapenak ahalbidetzeko diseinatuta egongo da.

Bestalde, igerilekuko instalazioen eraikin berria eraikitzen ari gara eta igerilekura sartzeko behin-behineko harrera-zerbitzua kontratatatzeko prozesua ere abian dugu. Biak gauzatuta egongo dira ekainerako, udako denboraldian igerilekua normaltasunez erabiltzeko aukera egon dadin, betiere, Covid 19-k baldintzatutako egoera epidemiologikoak posible egiten badu.

Momentuz, beraz, gauzak espero bezala doaz eta eman beharreko urrats guztiak sendo ematen ari gara”.

EH Bildu

"Orain arte egin den kudeaketa eskasa da, Udalaren altxortegian dirua izanik, egitasmoa prest izanik eta gehiengoan izanik ez dugu ulertzen kiroldegia eraberritzeko zergatik eman duten hainbeste denbora. Lanen exekuzioak luze jo du, eta oro har, kudeaketa ezaren ondorioa da. Eta horrela doaz egitasmo gehiago atzeratzen. Kezkaz bizi dugun egoera da, blokeo egoera modukoa dela uste baitugu. Zehazki, kiroldegia dagokionez, egitasmoa martxan jartzen hasteko ez litzateke hainbeste denbora pasa behar.

Analisi falta nabarmendu nahi dugu, bestalde. Ez dugu lidergotza argirik ikusten. Esaterako, kiroldegia atzean bada pareta bat lekuz kanpo geratzen zena. Konponbidea emateko planteamendua aurkeztu zuen oposizioak, eta gobernuaren erantzuna ezezkoa izan zen. Aurrekontutik kanpo geratzen zela zioten. Eta orain ikusi dugu pareta horrek lan karga erantsia eman duela, eta ekonomikoki ere kostu gehiago eragin duela.

Aintzat hartu beharko litzateke kafetegi zerbitzua eskaintzeko gunea, sozializatzeko gun bat delako”.

PSE-EE

Sozialistek ez dute obrari buruzko iritzirik eman nahi izan, ez baitira instalakuntzatan egon. Ezaguna da euren iritzia, egitasmoa landu den modura aurka agertu baitira. Maiz agertu dute proiektuarekiko desadostasuna. Udala aurrekontuen eztabaidan, esaterako, igerileku itxia eraikitzeke egitasmoa aurkeztu zuten. Kiroldegia ondoan oinez aritzeko edo korrika ibiltzeko pista ezartzea eskatu duten. Bestalde, kafetegi zerbitzua beharrezkotzat hartu zuten. Kiroldegia egitasmo honen aurka ehunka urnietarrek aurkeztutako sinadurak balioan jartzea gogora ekarri zituzten, azkenik.



Urnietako
udala

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Hainbat urtez nazioartean ibili da, eta etxetik joan zen uneaz geroztik ez da Urnietara bueltatu bizitzera, zeren ez baita inoiz guztiz eroso sentitu bertan. Hamaita erralitatearen bateragunea da Bartzelona eta bere tokia aurkitu du gazteak metropolian. *Pole dance* egiten hasi da berriki; hiri horretan aski ezaguna den arren, inork gutxi du horren berri Euskal Herrian.

Zer da *Pole dance*-a?

Pole hitzak "barra" esan nahi du ingelesez; aldiz, *dance* berbak, "dantza". Bertikalki ipinitako metalezko barra batekin praktikatzen den kirola da, non kirolariak barra erabiliz horren inguruan dantza egiten duen, indarraz eta elastikotasunaz baliatuta. Erronka handiko kirola da, oso zorrotza. Gainera, estigmatizatutako praktika bat da, eta beti lotu izan da ohitura jakin batzuekin. Alabaina, oso kirol egokia da osasuntsu egoteko, baita sortzailea ere. Izan ere, dantza egiteko aukera ematen du *Pole dance*-ak.

Zenbat *Pole* mota daude?

Bi *Pole* klase daude: *Pole dance* eta *Pole sport*. Biak ala biak barraren inguruan egiten dira. Alabaina, lehenak dantzarekin zerikusi handia du, eta bigarre-na lotuagoa dago jarduera fisikorekin, hau da, indarrak garrantzi handia du; jakin beharra duzu gorputzaren pisua kontrolatzen. *Pole dance*-a oso sortzailea da, eta nik uste dut hori dela jendeak gehien ezagutzen duen modalitatea, hain zuzen ere, *Pole dance exotic* delakoa: mundu erotikorekin lotu ohi da azken hori. Ez da *strip-tease*-a, baina arropa gutxiarekin eta takoiak jantzita egin ohi da. Asko du sentsualetik. Hori dela eta uste dut jendeak erotismoarekin harremantzen duela *Pole dance*-a.

Ahalegin fisiko handia egin behar da, beraz.

Nire ustez *Pole dance*-a zailagoa da *Pole sport*-a baino. Izan ere, azken horretan egiten duzun gauza bera egiten da lehenengoaren kasuan, baina estetikoia izan behar da, polit ikusi behar da. *Pole dance*-a erronka handiagoa delakoan nago, zeren *Pole sport*-arekin hasi behar baituzu, lehenik, indarra hartzeko eta zure gorputzaren gaineko kontrola izateko.

Teknika handia behar al da?

"Beldurrak eta lotsak galtzen lagundu dit *Pole dance*-ak"

ANDER GOYA OSTOLAZA POLE DANCE DANTZARIA

Urnietan motz geldituta, 18 urte besterik ez zituela egin zuen salto Ander Goya Ostolaza gazteak Bartzelonara, itzulpengintzako ikasketak egiteko asmoz



Ander Goyak orain urte batzuk utzi zuen Urnietan. © ANDER GOYA

Bai, teknika handiko kirola da. Barra batean zaude, bizpahiru metrora. Zure gorputzaren pisuari eutsi behar diozu, eta estetikoia izaten ahalegindu behar zara. Ez da bakarrik erronka fisikoari eustea; sorkuntzatik ere badu. Gainera, jendeak pentsatzen du *Pole dance*-a erraza dela, edonork egin dezakeela. Baina ez. Lehenik, indarra behar duzu barrara igo ahal izateko, eta, bigarrenik, elastikotasuna behar duzu; nik, adibidez, bigarren horretan trebatu beharra daukat oraindik. Finean, bi ezaugarri horiek batera lantzen dituzu.

Horrez gain, min handia egiten du: metalezkoa da barra eta zure gorputzeko hainbat atalekin eutsi behar zara, besteak beste, belaunaren atzealdearekin edo hankartearekin. Azalak zure pisuari eutsi behar dio. Barrak azala erretzen dizu, hots, gorrituta, minduta, zein ubelduta egon ohi da hasieran. Beraz, gorputza ohitu egin behar da. Irakasleak beti esaten digu azala ondu egin behar dela, zurratu. Badaude hainbat gauza mina ekiditeko, baina oztopoak dakartza, ez baitzara barrara behar bezala itsasten. Horrenbestez, ez da gomen-dagarria, azala, lehenago edo beranduago, ohitu egin behar delako. Hasierako hilabeteetan mina ematen du, baina gero ohitu egiten da gorputza. Nire kasuan, esaterako, azaleko hainbat zonalde onduta ditut; besaurreak eta lepoa, ordea, minduta.

Erraza al da lesionatzea?

Gutxienez, hiru metro neurtzen ditu barrak, oro har. Arriskutsua izan daiteke zure kabuz hasiz gero. Garrantzitsua da akademia batera joatea eta profesionalen esku egotea, alegia, beren bidez ikustea zeintzuk diren zure gorputzaren mugak. Jende asko lesionatzen da barran irristatuta. Horretarako, maiz, grip edo magnesioa erabiltzen da, hobeto itsasteko. Niri ez zait ezer gertatu apurka-apurka joan naizelako. Halaber, ezagutzen dut jendea urtebetez lesionatuta egon ostean berriro ere martxan jarri dena. Hiru metroko barratik eror zintezke, eta, buruz behera egoenez gero, adibidez, arriskutsua izan liteke.

Feeling Woman akademiara joaten zara zu *Pole dance* klaseak jasotzera.

Jende askok egiten du Bartzelonan *Pole dance* eta nabarmenki egin du gora joerak. Ez dut aka-

demia izena batere gustuko, estigma baten erakusle delako. Aitzitik, oso giro erosoa dago akademian. Europako eskola onena da: hiruzpalau mailatan banatuta dago, eta azterketa egin beharra daukazu batetik bestera igarotzeko, oinarritzko gauzak jakin behar baitituzu aurrera egiteko. Bigarren mailan nago ni.

Zenbat gizon daude akademian?

Ez asko, nahiz eta orain mutil gehiago etortzen hasi diren. Nahiko mundu "femeninoa" da, dakarren estigmatik. Beti izan da oso jarduera sexualizatua, emakumearen gorputzarekin lotu ohi delako. Egun, *Pole sport*-ak indarra hartu duenetik, gizon gehiago dator akademiara.

Jende askok lotzen du gaueko giroarekin, *striptease* jardunarekin.

Bai, hala da. Horixe da dituen hamaika estigmatetako bat. Beti lotu da gaueko lanarekin, giro sentsualarekin. Baina kirol kutsua duen praktika da, eta uste dut ez zaiola eman merezi duen lekua eta aitortza.

Epaitua sentitu al zara inoiz *Pole dance* egiteagatik?

Jakina. Hasieran, esaterako, epaituta sentitu nintzen. Jarduerak nire interesa piztean ez nituen gizonak ikusten kirol hori egiten. Dena den, akademian ez naiz inoiz epaituta sentitu, eta mutilak ere badaude. Baina nabari da emakumeentzat zuzendutako kirola dela, eta nire ustez estigma handia dagoelako da, emakumeei zuzenduriko kirol gisa ikusten delako. Eta ez da begi onez hartzen gizonek femenino gisa ulertutako jarduerak egitea. Gizon gutxi daude mundu horretan eta daudenak gizontasun eredu hegemonikotik egiten dute ihes, oro har. Betidanik erakarri izan



Ander Goya Pole dance-an. ©ANDER GOYA

nau *Pole dance*-a, eta horregatik eman nahi nion aukera bat. Oso gustuko dut, eta indarra zein elastikotasuna eskuratzen ari naiz.

Lotsa sentitu izan dut zenbait girotan *Pole dance* egiten dudala esateko. Isildu izan dudana zerbait da, eta ez dut ezer esan, epaitua izateko beldurra sentitu dudalako. Sentitzen dut oso erraz kritikatzeko duela jendeak, ezezaguna zaielako. Uste dute gaueko lanari bideratutako jarduera dela, alegia, *striper*-edo izan nahi duzulako egiten duzula *Pole dance*. Eta ez.

Zaila izan al zen akademian sartzeko erabakia hartzea?

Bai. Orain lau bat urte ezagutu nuen mundu hori lagun baten eskutik. Baina duela gutxi erabaki dut aurrerapausoa ematea, luze hausnartu ostean. Egun, gizon erreferente gehiago dago eta asko eskertzen dut hori, lehen ez baitzegoen kasik. *Feelin Woman* akademiaren izenean bertan islatzen da zein den mundu horren errealitatea. Horregatik kostatu zitzaidan hasieran. Hala ere, azkar konturatu nintzen izena izena dela eta akademian bost axola zaiela neska ala mutila zaren. Ez zaituzte epaitzen.

Zer ematen dizu zuri *Pole dance*-ak?

Egia da juxtu *Pole dance*-an hasi aurreko urteetan zerbait sortzailea egiteko gogoaz nengoela, eta banekien, modu batera edo bestera, dantza egin nahi nuela. *Pole dance*-arekin topo egitean ikusi nuen dantzatik ez ezik, jarduera fisikotik ere bazuela. Nigan konfiantza izaten erakutsi dit. Lehen, esaterako, ez nuke inondik inora sare sozialetan bideo bat igoko ni *Pole* egiten. Orain, apurka, gauzak aldatzen ari dira eta nigan konfiantza irabazi dut. Lotsak eta beldurrak



Ubelduak besoan. AG

Zehar-kalteak

Ez da lan makala *Pole dance*-an aritzea. Izan ere, ubeldurak eta zauriak eragiten ditu metalezko barrak, gorputza ariketa horretara ohitzeko lanetan.



Eskuak minduta. AG

galtzen lagundu dit *Pole dance*-ak. Oso mundu irekia da, eta *Pole* egiten duen jendeak ez zaitu inoiz epaituko. Askatzailea da jende askorentzat. Akademian nork bere istorioa du, askotariko tokietatik gatoz. Oso interesgarria da: pertsona gisa asko laguntzen du hazten, jendearen errealitateak ikusten eta ikasten.



JASO AIURRIKO ALBISTEAK TELEGRAMEN!

- Jaitsi Telegram aplikazio ezaguna.
- Sartu, **Aiurri Urnieta**, **Aiurri Andoain** edo **Aiurri Aiztondo** kanalean.
- Batu zaitetz (UNIRME) eta jaso eguneko albiste nagusiak.

ESKUALDEKO
NORTASUN
HITZAK



HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIAN BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 18

ANDOAIN Elkarretaratzea

"Pablo Hasel askatu".
18:00, Zumea plaza.

ANDOAIN Erakusketa

"Jainkozaletasuna eta erlijio errituak".
Azken eguna: Otsailak 27. Bastero.

URNIETA Erakusketa

Udal egutegiko argazki-bilduma
ikusgai dago Lekaion.
Otsailean zehar. Lekaio.

URNIETA Liburu salmenta

"Urnieta, 1936-1945" liburua.
Bertan, Elkar dendak. 10 euro.

URNIETA Lehiaketa

Antia literatur lehiaketa. Dagoeneko
irekita dago lanak aurkezteko epea.
Haur, gazte eta helduen mailakoa da.
Epea: Martxoak 12. Sarobe

OSTIRALA 19

ANDOAIN Antzerkia

"Atzerrian lurra garratz", Artedrama.
19:00, Bastero. 12 euro.

IGANDEA 21

URNIETA Bakarriketa

Oscar Terol aktore ezaguna.
18:00, Sarobe. 5 euro.

OSTEGUNA 25

ANDOAIN Kontzertua

Tenpora musika taldeak "Berriro
asma nazazu" diskoa aurkeztuko du.
19:00, Bastero. 12 euro.

OSTIRALA 26

ANDOAIN Elkarretaratzea

Sare herritarra ekimenak antolatuta.
19:00, Zumea plaza.

IGANDEA 28

URNIETA Magia saioa

Hodei Magoaren "Ezinezkoaren
logika" magia ikuskizuna.
17:30, Sarobe. 3 euro.



Ander Lipus eta Laura Penagos aktoreak Amancay Gaztaniaga zuzendariaren esanetara.

ANDOAIN Atzerrian lurra garratz antzezlan

Posible al da gurea ez den lur batean sustraitzea? Posible, familia eta aberriaren
zama gainean dugula, hegaldi propioari ekitea? Eta, gau batean, gure bizitzaren
norabidea erabaki beharko bagenu? Ander Lipus eta Laura Penagos aktoreak
galdera moduko hausnarketa horiei buruz ariko dira.

Otsailak 19, ostirala. 19:00. 12 euro. Bastero.




Oscar Terol. AIURRI

URNIETA Oscar Terolen bakarriketa saioa

'¡Por comentarlo!' azken bakarriketan, telebistako aktore ezagunak
gaurkotasunaren errepasoa egingo du musukoetan gordetako barreak entzuteko
erronkari aurre eginez.

Otsailak 21, igandea. 18:00. 5 euro. Sarobe.

ZINEMA


**ANDOAIN****BASTERO****La chica del brazalete**

Helduentzat.
Larunbata, 20:
19:00.
Igandea, 21: 19:00.

Astelehena, 22:
19:00
Ikuslearen eguna.
Mina y el Mundo de los Sueños
Haurrentzat.
Larunbata, 20:
16:30.
Igandea, 21: 16:30.



SINOPSIS

**La chica del brazalete**

Zuzendaria, gidoilaria: Stéphane Demoustier. **Aktoreak:** Melissa Guers, Roschdy Zem, Anaïs Demoustier. **Herrialdea:** Frantzia (2019). **Generoa:** Drama, krimena. **Iraupena:** 95 min.

Alaba, eta haren gurasoak

Frantzian zer esan handia eman duen filma da. Lise 16 urteko gaztea da, eta haren lagun onena hiltzea leporatu diote. Epaiketan zehar gurasoek sutsuki egingo dute haren alde. Baina epaiketak aurrera egin ahala, alabarekiko konfiantza

sutsu hori galduz joango da. Zenbateraino ezagutzen ditugu etxeokak? Galdera filosofiko horri heltzen dio filmak. 2020ko Cesar sarietarako bi izendapen lortu ditu; egokitutako gidoi onenari eta aktore berrienari (Melissa Guers) hautagaia da.

SINOPSIS

**Mina y el mundo de los sueños**

Zuzendariak: Kim Hagen Jensen, Tonni Zinck. **Herrialdea:** Danimarka (2020). **Generoa:** Fantasia, marrazki bizidunak. **Ekoizpena:** First Lady Films, Sola Media. **Iraupena:** 81 min.

Ametsen munduan barrena

Minaren bizitza erabat aldatuko da, aitaren bikotekide berria Helene eta haren alaba Jenny

etxera bizitzera etortzen direnean. Ametsen mundua aurkituko du Minak.



Allurralde kiroldegiko igerilekua. AIURRI

Udal instalakuntzatan jarduera fisikoak egiteko neurri berriak

LABIk ezarritako neurri berrien eraginez, jarduera fisikoak egiteko aukerak zabaltu dira bi herrietan

Erredakzioa URNIETA

Udalerrri bakoitzak bere neurri-egokitu ditu pandemia garaian bete behar diren gutxieneko baldintzak. Egun hauetan kirol-jarduera egiteko aukera dute herritarrek mugakide diren herrietan, bai instalazioetan, bai aire zabalean. Ildo beretik, mugikortasuna baimendu da, kirol jarduera erdi-profesionalaren kasuan. Adibidez, Andoaingo Gizonezkoen Erregional Ohorezko Mailako taldearen edo Urnieta Artola harategia eskubaloiko lehen taldearen kasuan. Gainera, herri mugakidetik harago joateko aukera izango dute herritarrek honako kasu hauetan, baldin eta jatorrizko nahiz helmugako herria ez badago eremu-gorrian: kirol federatutako entrenamenduetarako zein lehiaketetarako, eskola-kirolko entrenamenduetarako eta gimnasio, klub zein kiroldegietako ikastarotarako.

Allurralde kiroldegiko igerilekua Andoainen, adibidez, igerilekua mugakide diren herritarrek ere erabili ahal izango dute. Urnietarrak, beraz, astelehenaz gozotik Allurralde kiroldegiko igerilekura hurbil daitezke. Gauza bera gertatzen da Arrate

pilotalekuarekin. Izan ere, inguruetako hamaika kide jasotzen ditu Gazteleku pelota-eskolak.

Urnietako kiroldegiko zerbitzua

Herritarrei bermatutako zerbitzua luzatu du. Larunbatekoa zabaltu egin da eta igandekoa mantendu. Hauexek ordutegiak:

- Astelehena – ostirala: 08:00-14:00 / 14:30-21:00
- Larunbata: 09:00-14:00 / 14:30-21:00
- Igandea: 09:00-14:00

Garbiketa eta desinfekzioa

Ordu-eskaintza zabaltzeak ez du eraginik izango garbiketa eta desinfekzio lanetan, orain arteko maiztasun berarekin egingo baitira, eraikin osoan higie baldintza egokiak bermatu aldera. Horretaz gain, babes-neurri guztiek indarrean jarraituko dute eta zorrotz bete beharko dira: musukoa jantzita eduki behar da uneoro, eskuak garbitu behar dira, baita erabilitako makinak ere. Horrez gain, nork bere toaila eraman behar du etxetik.

Aldez aurreko hitzordua hartu behar da. Horretarako Udaren APP-a eta webgunea erabiltzeko aukera dute urnietarrek. Telefono zenbakia: 943 00 83 28.

MUGAKIDE DIREN ERABILTZAILEAK ANDOAINGO IGERILEKURA HURBIL DAITEZKE

URNIETAKO INSTALAKUNTZAK ERABILTZEKO ORDUTEGIA ZABALDU DA

Manifestazioa deitu dute Urnietan, larunbaterako

Deialdia luzatu du herritar talde batek, joan den larunbatean Ertzaintzarekin izandako istilua medio

Erredakzioa URNIETA

Manifestazioa egiteko deialdia egin du urnietar talde batek, besteak beste, iragan asteburuan, herrian bertan ertzainek izandako jarrera salatzeke. Larunbatean, hilaren 20an, izanen da mobilizazioa, hain zuzen, herriko San Juan plazan, arratseko 17:00etan. Hasiko den leku betean emango diote amaiera manifestazioari, herri osoa zeharkatu ostean.

Istiluak larunbat gauean

Hautsak harrotuta bukatu zen iragan larunbata Urnietan, iluntzeko 21:00ak aldera Ertzaintza Idiazabal kalean agertu zenean. Hala, tentsio handiko uneak bizi izan ziren, eta bertako lekukoen arabera, oso jarrera oldarkorra erakutsi zuten ertzainek. Orotara, bederatzi kide identifikatu eta gazte bat atxilotu zuten.

Idiazabal kalean zeudenen lekukotza

“Guztiak geunden Xauxar tabernaren kanpoan hitz egiten, lasai-lasai”, aitortu du jazoeran zegoen urnietar batek, “Ertzaintza etorri zen eta denok alde egin genuen, baina batzuk bertan gelditu ziren”. Horiek horrela, beste lekuko batek adierazi du identifikatu egin zituztela korrika alde egitea erabaki ez zuten urnietarrak: “Ez geunden ezer egiten, eta jotzera etorri ziren. Harrigarria izan zen”.

Egun, egoera epidemiologikoak hobera egiteko asmoz ezarritako neurriei jarraiki, tabernak 20:00tan ixten dituzte, eta kalean 22:00ak arte egoteko aukera dago. Denbora tarte horretan gertatu zen joan den asteburukoa, hots, tabernak itxi ostean eta etxeratzeko-ordua baino lehen.

"Fusilak eta pintadak" dokumentala, Basteron

Saharako erresistentzia hizpide, otsailaren 25ean dokumentala eskainiko dute Basteron

Erredakzioa URNIETA

Saharako erresistentzia hizpide, dokumentala eskainiko dute Bastero kulturunean. Ekitaldi-aretoan izango da, datorren 25ean arratsaldeko 18:30ean hasita.

Marokok okupatutako lurraldeetara darama dokumentalak ikuslea, eta lanaren helburua bertan indarkeriarik gabeko borroka gauatzeko hautua egin duten aktibisten jarduna ikus-taraztea da. Bide batez, giza eskubideen aldeko mugimendu honek gatazkaren aurrean proposatutako irtenbideak ere aurkeztu ditu ikus-entzunezko piezak.

Dokumentalean, sahararrek sufritzen dituzten gehiegikeria guztiak azaltzen dituzte Equipe Media kolektiboko kazetari aktibistek, Nazio Batuen Erakundeak agindutako autodetermi-

naziorako erreferendumaren zain dauden bitartean. Izan ere, horren bitartez bukatu egingo litzateke Marokok orain 40 urtetik gauzatutako Sahara Mendebaldeko okupazioa.

Hurria Sahara elkarteak Andoaingo Udalaren babesarekin antolatutako hitzordua da. Sarreren erreserbari dagokionez, hainbat lekutan egongo dira eskuragarri: Delgado, Ernaitza, Stop eta Urrats. Egunean bertan ere egongo da aukera sarrera lortzeko, harik eta aforoa bete arte.

SARRERAK DAGOENEO ESKURAGARRI DAUDE DELGADO, ERNAITZA, STOP ETA URRATSEN

BERTSOA

ATAL BERRIA AIURRIN

Ion Beloki andoaindarrek jarritako bertsoa da, atal berriko hirugarrena: *Kasualitate batzuk badira gure bizitza honetan Galindo zaharra erori zaigu covid-arenugarretan intxaurren astintzen beti zebilen eginahalean torturatzaila sutsua baitzen Euskal Herriko lurretan kasualitatez mundua utzi du bere egunean bertan.* Doinua: "Lurraren pean sar nindaiteke".

ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Zorionak Aitor
Otsailaren 18an urte bat beteko duzu. Muxu handi bat bihotz-bihotzez amona Begoña eta aitona Mikelen partetik.



ANDOAIN
Ekhiñe Artano Zulaika
Otsailaren 8an 7 urte bete zenituen eta merezi bezala ospatu genuen. Zorionak maitia!

TELEFONO ZENBAKIAK

URNIETA

Udaltzaingoa: 092 / 943 008 000.
Ertzaintza: 943 538 840.

ANDOAIN

Udaltzaingoa: 943 300 819.
Ertzaintza: 943 538 840.

OSASUN ALORREKOAK

Andoain: 943 006 670.
Urnietak: 943 006 680.
Larrialdiak: 943 461 111.
Osasun Aholkuak: 900 203 050.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN

Larunbata 20, igandea 21
Zatarain: Elizondo, 6.
943 590 802. Andoain.

URNIETA

Larunbata 20, igandea 21
Aguado: Kale Nagusia, 21.
943 550 327. Astigarraga.



Buruntzaldea IKT taldeko kideak. BURUNTZALDEAKIT

Federatu mailako kirol-jardueren abiatze berria

Azken asteetan zer esan handia eman du kirol munduak. Izan ere, neurrien gaineko nahasmena handia izan da. Hala ere, egoera epidemiologikoaren hobetzeak, kirol federatuko jarduerak berrekitea bultzatu du

Mikel Arberas ANDOAIN

Azken asteetan zer esan handia eman du kirolaren gainerako neurriek. Izan ere, nahasmena handia izan da, ez baitzegoen oso garbi zer zegoen baimenduta eta zer ez. Eskualdean berriro ere kirol-federatuari ekingo zaio. Intzidentzia-tasaren jaitzierak eta Eusko Jaurlaritzak hartuta neurri berriek kirol profesionala, semi-profesionala eta federatua egitea baimentzen duelako. Andoainen eta Urnietan badaude hainbat talde maila

horietan sartzen direnak, eta, beraz, asteburuan ekingo diote lehiaketei. Talde horietako batzuk jada hasi dira entrenamenduetan ere.

Andoainen eta Urnietan kirol mota ugari egiten dira, futbola,

"OHOREZKO ERREGIONAL MAILA SEMI-PROFESIONAL GISA IZENDATU DU JAURLARITZAK"

eskubaloia, eskupilota eta igeriketa beste askoren artean. Gauzak horrela, intzidentzia-tasa 500etik jaitsi eta neurri berriak indarrean jarri zirenean, talde hauek entrenamenduetara itzuli ziren.

Futbola

Gizonezkoen Ohorezko Erregional maila erdi-profesional gisa izendatu du Eusko Jaurlaritzak; beraz, asteburu honetan ekingo diote ligari Euskaldunako jokalariek. Ez dago

eguna zehaztua, baina Real Union taldearen aurka jokatu du Euskaldunak etxetik kanpo. Partida zaila izango den arren, gogoz hasiko dute, zeren eta urriaren 18an jokatu baitzuten ligako azken partida, Oiartzunen aurka. Galdu egin zuten, bat eta huts. Jokatu den partida bakarra kontuan hartuz gero, talde andoaindarra 8. postuan kokatua dago, 10eko multzokatzean.

Dena den, Urnietako senior emakumean Ohorezko Erregional mailan egon arren, asteburuan ez da partidarik jokatu.

Eskubaloia

Urnietako Artola Harategia taldeak jada hiru partida jokatu ditu Gizonezkoen Euskadiko Senior ligan. Maila altuko txapelketa denez, entrenamenduekin jarraitu dute eta liga gutxiago eten da.

Talde urnietarra azken aurreko postuan kokatua dago, bi punturekin. Jokatu dituzten hiru partidetatik bakarra irabazi dute, pasa den asteburuan Deusto Loyolaren aurka (30-32). Maila izugarria erakutsi zuten, eta partidak irabazten jarraitzeke nahia azaldu zuten. Nabarmendu beharra dago etxetik kanpoko jokatu zutela.

Asteburu honetan ere, etxetik kanpo jokatu du taldeak, azkeneko postuan dagoen Arrasateren aurka. Aurretiaz partida eramangarria eta errazagoa dirudien arren, lan handia egin beharko dute urnietarrek etxetik kanpo puntuak eskuatzeko. Arrasateko taldea azken postuan egonda, ezinbestean irabazi beharko dute lehiaketan aurrera egiteko. Beraz, norgehiagoka interesgarria izango da.

Urnietako emakumezkoen senior taldeak, asteburu honetan jokatu behar zuen, baina norgehiagoka atzeratu egin da.

Andoaingo Leizaran taldeak larunbatean jokatu du Donibane eskubaloia taldearen aurka. Hauek ez dute partida bakar bat ere jokatu, hau da, asteburuko izango da ligako lehen partida.

FEDERAZIOAREN LIZENTZIA DUTEN MENDIZALEAK EUSKADIN BARRENA MUGITU DAITEZKE

Gizonezkoen junior mailako ek Andoainen jokatu dute igandean, goizeko 11:00etan. Leizaranen eta Urnietaren arteko derbia izango da ligari ekiteko lehen partida. Emakumezkoen junior mailan ere, partida Leizaran eta Urnietaren artekoa izan behar zen, baina atzeratu egin da.

Igeriketa

Buruntzaldea Igeriketa Taldekoek hainbat lehiaketetan parte hartu dute jada; emaitza ederrak lortzen ari dira, tartean Andoaingo eta Urnietako igerilariekin.

Horiek ere entrenamenduetan murgiltzen hasi dira. Nabarmendu beharra dago, Andoaingo igerilekura joaten diren kirola asko beste herrietakoak izanik, leku batetik bestera mugitu daitezkeela. Andoaingo kiroldegia adierazi duenez, udalerrien arteko mugikortasuna baimenduko da mugakideak ez izan arren, kirol federatuko entrenamendu eta lehiaketetarako, eskola kiroleko entrenamenduetarako eta ikastaroetarako; baldin eta jatorrizko eta helmugako udalerriak koronabirusagatik kasu positiboan intzidentzia tasa 500 baino txikiagoa badu.

Esku pilota

Federatuak direnek eta kadete mailatik gorakoek entrenatu ahal izango dute Arrate pilolekuan. Aritz Eskudero Gazteleku Pelota Eskolako arduradunak azaldu duenez, "kadeteak baino gazteagoak direnekin entrenatzen hasiteko baimena dugu, baina oraingo ez hasitea erabaki dugu, egoera epidemiologikoa medio. Datozen asteetan egoera hobetzen bada, hasiko gara gatzetxoan entrenamenduekin".

Euskal Mendi Federazioa

Federazioak azaldu duenaren arabera, lizentzia duten kideak beren mendi-jarduera egiteko mugitu ahal izango dira Araba, Bizkai eta Gipuzkoa artean, eremu gorrian dauden herriak salbuetsita.

Nabarmendu du gehienek sei laguneko taldetan egin ahal izango direla mendi-jarduerak; ez hori bakarrik: oinarritzko segurtasun eta higieen neurriak bermatu beharko dira. Nafarroatik, berriz, ezingo dira Gipuzkoara, Bizkaiara edo Arabara joan.